

Euskal herrietan komentuz komentu

Lazkaoko Beneditarrak

La Familia religiosa benedictina ha sido entre nosotros la principal protagonista en la creación de Monasterios de larga historia (desde los s. XI-XII). El de Lazkao (Gipuzkoa) está inserto en esa tradición monástica, y es fruto de una doble circunstancia: la supresión del convento carmelitano local (1839) y la instalación de una comunidad benedictina, expulsada de Iparralde (de Beloke, 1903).

Gipuzkoako Goierriin dago Lazkao, eta bertan beneditarren Etxe ezaguna; berau izan da Probintzia horretako monje beneditarren Monasterio bakarra, ez baita egon bertan inoiz beste horrelako monasteriorik. Etxea garai batean karmeldarren komentua izan zen (1641-1839). Iparraldeko Belokeko monjeak, Idiazabalen denbora-aldi bat egin ondoren (1903-1905), hutsik zegoen komentu zahar hartan jarri ziren bizitzen (1906). Ehun urteak beteta ditu, beraz, beneditarren Lazkaoko Etxe honek, XX. mendeko aldarre txar eta une hobek ezagutu dituela.

Lazkaoko monjeen bizitza

Iparraldetik botata etorritako monjeek aukera ona izan zuten Goierriin, betiere Euskal Herrian bertan, beren bizi-modua antolatu eta Komunitatean bizitzeko. Hasiera apal eta neketsu haien ondoko historia da Lazkaoko beneditarrena.

Esan bezala, Belokeko beneditar euskaldun eta ez-euskaldunek sortutako Monasterio hau lehenengo hamarkadetan bere jatorrizko Monasterio haren mendean egon zen; baina, denborak aurrera egin ahala (eta Frantziaren ere urak baretzean), interes-modu ezberdinak sortu ziren Komunitatean. Lazkaon bertan zinez bertakotu gabeko monjeak Belokera itzultzen saiatu ziren, eta, aldi berean, hemengo Monasterioa indartu egin zen monjegai gazteak erakarriz. Guztiaren ondorioz,

1943an Lazkaok bere autonomia lortu zuen, Priorre-Etxe bihurtuta. Bide beretik, mende-erdi bat geroago Abade-Etxe bilakatu zen beregaintasun osoarekin (1967).

Artean, Belokekoak eta jatorriz hemengoak elkarrekin zirela (1910), 56 monje zeuden Lazkaon (horietako 29, apaizak). Zenbait urte geroago, jada Beloketik banatuta, 42 monje ziren (1955), eta 1969an 51. Gorako joera hark geroztik behera egin du, Institutu Erlijioso gehienetan bezalatsu, eta 2011.ean sei monje bizi dira Lazkaon.

Garai batean Komunitatea hiru taldetan banatu ohi zen, bakoitza zeregin eta eskubide ezberdinekin: monje apaizak, monje ikasleak eta monje laikoak. Gaur egun, Kontzilioaren ondoren, denak berdindu egin dira beren eskubideetan, eta apaiztasuna ez da monjeen arteko izaera bereizgarria.

Lazkaoko Monasterio honek zintzoki eutsi dio San Benitoren "ora et labora" zeregin bikoitziari, hau da, otoitzarekin Jainkoari eta lanean gizarteari begira. Eguneroko eskulanaren bidez Etxeko ekonomiarik bizi-oinarria segurtatu diote (baratza, oilategia, etab.), Meza-ordinek eta parrokiatiko noiz-behinkako zerbitzuek ere kanpoko laguntzak dakartzatela.

Euskal Herriko kulturgintzan

Monasterio historikoen tradizioari jarraituz, Laz-



kaokoak ere eman du XX. mendean emaitza ederrik euskal kulturaren, gerratek hona bereziki. Kultur sorkari iraunkorrak eman dituzte beneditarrok, hau da, fraideak desagertzean ere euskal gizartearen onerako iraungo dutenak. Dena aipatzerik ez dudan arren, hiruzpalau ekimen nagusi gogoratuko ditut hemen.

Lazkaon, kasik hogeita hamar urtetan, fraidegai eta herritarrentzako Ikastetxea egon zen irekita (1940-1969), Lazkao eta inguruko herrietara begira jardun zuena. Ikastetxe horretan lehenik fraidegaiak egon ziren Humanitateak, Filosofia eta Teologia ikasten, hau da, beneditarren Seminario Nagusia izan zen, monjegai gazte euskaldunak biltzen zituena.

1955etik aurrera, itxi zen arte, Batxilergoa ere eman zen Ikastetxe hartan: laster eta urtero, 25en bat monjegai eta 120 ikasle herritar edo bildu ohi zituena. Ikasketen alorrean, Goi-Ikaskuntzaz baliatzen saiatu zen, gainera, Lazkaoko Komunitatea, bertako zenbait monje eta apaiz berri Europako Eliz Unibertsitateetara bidaliz. Horrela, Erromako *Anselmianum* zeritzanera, Pariseko *Institut Catholique*-ra, domingotarren Saulchoir eta abarretara joan izan ziren Lazkaoko monjeak. Bestalde, Goierriko txokoa ahaztu gabe, atzerrian ere lan egin dute beneditar hauek (Puerto Rico, Venezuela).

Herrian eta Goierriin kultur zeregin osagarrikeriez zen falta izan: musika irakatsi, itzulpenak egin, liburutegia zaindu eta hobetu, argitalpen berriak sustatu, etab. Ez da hau harritzekoa, kultura beti izan da maitatua beneditarren Monasterioetan, eta Lazkakoa eredu ere gertatu da egin duen zenbait lanetan.

Hasteko, gogora dezagun Iparraldetik etortako monjeen artean zegoela Basilio Joanategi idazlea (Lazkao, †1921). Beloke eta Lazkaoren arteko

lankidetzak euskaltzaleak emaitza gogoangarriak eman ditu XX. mendean, Aita Lertxundi eta Xabier Dihartze "Iratzeder"-en doinu eta olerkiak Hegoaldera ekarri eta egokituz, eta beneditarren betiko tradizio liturgikoaren arrastean Kontzilio ondoko erreforman parte hartuz.

Erbestetik itzultzean, Orixe idazlea (†1961) Lazkaoko Etxe honetara bildu zen aldi batez (1955-1956) eta ondoren harreman bizkorrean egon zen bertako beneditarrekin (Salmutegia-ren argitalpena, 1967). Dionisio Amundarainen itzulpengintzak marka guztiak hautsi dituela esango luke batek, hain da oparoa eta maisua egindakoa; Goierriko euskal alfabetatzean zinezko irakas-eskola sortu zuen honek, azkenik *Maizpide* euskaltegian bere luzapena izan duena.

Kontzilio-ondoko Liturgiak asko zor die beneditar hauei: Jaunaren Deia-n (1966-1987), apai-zentzako euskarazko testu lagungarriak eskaini izan dituzte eta, oro har, neurri on batean euskalgintzako gune azkarra izan da Gipuzkoan Monasterio beneditar hau, *Jaunaren Deia. Monastegien aldizkaria* ere tartean dela (1989-1997).

Bertako lehen Ikastetxe hura ixtean (1969), bide berriak urratu nahi izan zituzten monjeek, eta horietakoak izan dira Aita J. J. Agirrek ireki eta garatu dituenak: Monasterioko Biblioteka, berorren barruan Euskal Liburutegia, eta Artxiboa (1973...). Azken honek, bere eraikin berrian, 6.000 aldizkariaren aleak biltzen ditu, eta osatuz doa, artxibo bizia da, beraz (asko eta asko ale gutxiokak eta horregatik preziatuak; beste hainbat, bilduma osok); karteletan 22.000ren bat ale.

Horra otoitzez, lanez eta jakinduriatz betetako Etxea!

Joseba Intxausti